

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure negozioak konpontzen duen behar nagusia da kanpotar askok tokiko kultura eta gastronomia benetakoa ezagutzeko duten zailtasuna, gaur egungo eskaintza turistikoa askotan artifiziala eta estandarizatua delako. Bisitariek bertako jendearekin harreman zuzena izateko eta eguneroko ohiturak barrutik bizitzeko aukera falta dute.

Horri irtenbidea emateko, lagunarte gastronomiko baten esperientzia eskaintzen dugu: bezeroak bertako gazteekin elkartzen dira, talde txikietan, elkarrekin sukaldatu, jan eta denbora partekatzen. Esperientzia hau ez da ikuskizun bat, baizik eta parte-hartzailea eta gertukoa, bezeroa une oro protagonista bihurtzen duena.

Lehiakideekiko desberdintasun nagusia autentikotasuna, pertsonalizazioa eta giro informala dira. Esperientzia bakoitza desberdina da, lagunartearen, janariaren eta momentuaren arabera, eta horrek balio handia ematen dio. Gainera, talde txikiak izateak arreta pertsonalizatua eta segurtasun handiagoa bermatzen du.

Bezeroek ordaintzeko prest daude esperientzia bakarra, errepikaezina eta benetakoa delako, jatetxe edo bisita gidatu arrunt batek baino balio emozional eta kultural handiagoa eskaintzen duelako. Balioa nagusiki kualitatiboa da (esperientzia, harremanak, kultura), baina prezioa eskuragarria eta arrazoizkoa da bezero segmentuari egokituta.